



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko ekainaren 17a

88. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzekoa. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duena. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek aurkeztu dute (9. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, inbestidura-hitzaldiko proposamenik esanguratsuenen garapena dela-eta Gobernuak izandako jarrerari buruzkoa. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Jabeldura, Nafarroako hezkuntza-sistemaren ebaluazioari dagokionez Hezkuntza Departamentuak garatuko duen politika orokorrari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du funts bat sor dezan amiantoaren biktimei kalte-ordaina emateko. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari premiatzen da gizarte ekintzaitzako ekimenak susta eta babestu ditzan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari premiatzen da Nafarroako Ubidearen bigarren fasea Pitillasen eta Buñuelen artean eraikitzeko proiektuaren idazketa kontrata dezan. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari premiatzen da laguntza psikosozialeko estrategia bat ezar dezan, hipoteka-betearazpeneko edo alokairua ez ordaintzeagatiko prozesuek ukitutako pertsonen pairatzen dituzten kalteen prebentzioa eta murrizketa eta pertsona horientzako babesa jasoko dituen. María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztu du (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari premiatzen da egutegi bat aurkez dezan, Ezgaitasunaren Arreta Integralerako “Valle del Roncal” Iruñeko zentroa berrizatzeko eta handitzeko proiektua gauzatzeko. Maribel García Malo andreak aurkeztu du (19. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikuskapen-ekintzak bultza ditzan, Foru Komunitateko zerbitzугuneei eta gasolindegiei buruzko araudia betetzen dela egiaztatzeko. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (21. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lodosako Pablo Sarasate BHIrako aurreinskripzioa baino lehenago aurreikusitako hasierako eskolatzte-eskaintza mantentzean. María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztu du (22. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako zentro teknologikoen hazkundera eta bilakaera babestu ditzan, zentro teknologikoen sarerako eredu berri bat prestatuz, Europako errealitate teknologikora egokitua. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea (23. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emanaldiak Interneten bidez eskaintzen dituzten munduko telebista guztiak ikusten lagundu eta aukera hori erraztu dezan, salbu eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren edozein artikuluri eraso egiten dion edukia daukatena. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea (23. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasuna adierazten baitizkio Takbar Haddi hiritar sahararrari. Eledunen Batzarrak onetsia (24. or.).
- Adierazpen instituzionala, Espainiako Zeinu-Hizkuntzen Egun Nazionalaren kariatara. Eledunen Batzarrak onetsia (24. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasunik sakonena adierazten baitie Orlandoko atentatuen biktimei. Eledunen Batzarrak onetsia (25. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Orlandoko gertakari lazgarrietan eraildako pertsonen familia eta lagunen saminarekin, bai eta gertakari lazgarri horien gaineko gaitzespen-hitzekin ere. Eledunen Batzarrak onetsia (25. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko Larrialdi Zerbitzuan fibrinolisia egiteari buruzkoa. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak egin du (26. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak datozen urteetarako Miguel Indurain Fundazioarentzat dauzkan planari eta programari buruzkoa. Cristina Altuna Ochotorena andreak egin du (27. or.).
- Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa Baluarte Fundazioan sartzeari buruzkoa. Cristina Altuna Ochotorena andreak egin du (27. or.).
- Galdera, honako erabaki honi buruzkoa: Nafarroako Gobernua premiatzen duena erraztu dezan urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten pertsona gaixoek tratamendu medikoa atxikitzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek agindutakoa izanik, finantzaketa publikoa duenean. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (28. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuaren egituraren eta goikargudunen artean egingen diren aldaketei eta aldaketa horiek egiteko arrazoiei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (28. or.).
- Galdera, Lehen Hezkuntzan kanpo-ebaluaziorik ez egiteari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (29. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko lehendakaria hautatzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (30. or.).
- Galdera, irakaslez bestelako langileak direla-eta Hezkuntza Departamentuak ikastetxeei eskatutako informazioari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (30. or.).
- Galdera, Fiteroko monasterioko klaustroaren zaharberritzea finantzatzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (31. or.).
- Galdera, Karlismoaren Museoaren edukari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (32. or.).
- Galdera, Ribaforadako kontsultategi mediko berriaren eraikuntza geldiarazteari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (33. or.).
- Galdera, Iruñeko El Huerto ikastetxean curriculum bereziko unitate bat ez ezartzearen arrazoiei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (34. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak Foru Lege proposamena aurkeztu du, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzekoa.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Lege proposamena, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzekoa.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aitzindaria izan da bere arloan, eta inspirazio moduan balio izan du azken urteetan erredaktatu eta onetsi diren antzeko beste lege batzuetarako, horren barne dela Estatuko abenduaren 9ko 19/2013 Legea, Gardentasunari, Informazio Publiko Eskuratzeari eta Gobernu Egokiari buruzkoa.

Zabala da gobernu irekiaren arloan aintzat hartu den gai berria, eta hain zuzen ere gardenta-

sunaren oinarrizko osagaia da gobernu irekia, zeinak, gainera, berarekin baitakartza parte-hartzea eta lankidetzeta, oinarrizko ardatz moduan. Gai eta gogoeta berri honek guztiak Espainiako gobernu egokiari buruzko lege-testuak aberastu ditu Espainian eta munduan.

Bilakaera logiko eta azkar horrek, sare sozialean eta gailu teknologikoen oldarka sartzeak elikatutak, eragin du Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legean gabezia garrantzitsuak egotea, zeinei konponbidea eman behar baitzaie kontuak emateari, gardentasun horizontalari eta gobernu egokiari begira, kasu horietan guztietan herritarrek erabakiak hartzen parte har dezaten.

Era berean, lege honen erabilera herritarrei jakitera ematea ezinbestekoa da bera betearaz dadin eta haren helburuak bete daitezela. Gobernuak da Gobernu Irekiaren eta Gardentasunaren arloko herritarren interesak beren zabaltasun osoan ezagutzera eman behar dituenak.

Horretarako, foru lege honek ondoren aipatuko ditugun aldaketak dakartza. Lehenengo atalean, foru legearen aplikazio-esparrua honako hauetara zabaltzen da: Nafarroako Parlamentua, Kontuen Ganbera, Arartekoa, Unibertsitate Publikoa, alderdi politikoak, enpresa-erakundeak, partzuergoak, enpresa mistoak eta diru-laguntzen, laguntzen edo diru-sarrera publikoen kupo jakin bat duten enpresa pribatuak. Horiek guztiak gaur egun ez daude Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legean.

Bigarren atalean, gehitzen da herritarrek informazioa errazago eskuratzeko tresna digitalak sartzeko beharra; esate baterako, herritarrentzako alertak eta bestelako elementu teknologikoak, zeinetan arrakala digitala kontuan hartu beharko baita, populazio-tarte ahal den zabalenak haiek erabil ahal ditzan. Laugarren eta bosgarren atalean, foru legeko 13. artikuluari zenbaki batzuk gehitzen zaizkio, zeinek nahitaezko egiten baitute bidaia-gastuak, telekomunikazioak, agendak,

organigramak, ondasun higiezinak, txostenak, kos-tuak, erregistroak eta fakturak zehaztasunez argitaratzea.

Seigarren, zazpigarren, zortzigarren eta bederatzigarren ataletan, 17, 20, 26, 28 eta 69. artikulua osatzen dira, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legeari emateko bera ezarri zenetik arlo honetan biltzen joan den esperientziarekin bat datozen publizitate aktiboa eta publizitate pasiboa.

Hamaikagarren atalean, beste titulu bat gehitzen da, lobby deitutakoak araupetzeko; hori dela eta, Interes Taldeen Erregistro Publikoa sortuko da. Hamabigarren atalean, XI. titulua gehituko da "Arau-hauste eta zehapenak" izenekoa, zeina funtsezko elementua baita Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea edukiz hustu ez dadin.

Azkenik, hiru xedapen gehigarri erantsi dira, horietatik bi epeei buruzkoak eta bestea toki entitateei buruzkoa. Azken horri jatorrizkoan agertzen zenaren errepikapena da, eta Nafarroako Gobernu behartzen du Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeko foru lege proiektu bat egitera, Nafarroako toki entitateen jardueran xertatzeko Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko uztailaren 21eko 11/2012 Foru Legean jasotako printzipio eta aurreikuspenak.

Artikulu bakarra. Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen aldaketa.

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea honela aldatzen da:

Bat. 2. artikuluari beste idatz-zati bat, 3.a, gehitzen zaio. Hona edukia:

"3. Halaber, honako hauek daude foru lege honen xedapenen mendean:

a) Nafarroako Parlamentua, Comptos Ganbera eta Nafarroako Arartekoa.

b) Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

c) Enpresa mistoak, partzuergoak eta Zuzenbide Publikoko korporazioak.

d) Alderdi politikoak, sindikatuak eta enpresa-erakundeak.

e) Entitate pribatuak, honako kasu hauetan:

– Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak, laguntza publikoak edo beste edozein kontu-sail jasotzen badute, urtean 50.000 eurotiko gorakoak.

– Haien urteko diru-sarreraren gutxienez ere ehuneko hogeita hamar diru-laguntzetatik edo laguntza publikoetatik heldu bada, betiere kopuru hori 5.000 eurotik gorakoa bada."

Bj. 7. artikuluko 1. idatz-zatiak testu hau izanen du:

"1. Nafarroako Gobernu Irekiaren Interneteko atariaren esparruan, software libreko berariazko plataforma informatiko bat garatuko da, zeinak bilatzaile bat edukiko baitu informaziorako sarbide azkar, arin eta ulergarria izateko, bai eta alerta-tresna batzuk ere gaurkotu diren datuei buruz; halaber, erabilpenerako tutoretza bat egonen da, bai eta laguntzarako kontsulta-espazio iraunkorrak ere, horien bitartez erabilera ahal den guztian errazteko, erabiltzailearen ezagutza digitalak zein diren ere."

Hiru. 12. artikuluari zenbait idatz-zati erantsen zaizkio. Eduki hau izanen dute:

"9. Informazio publiko guztia modu jarraituan argitaratzen joanen da, eta etengabe gaurkotuko da. Hiru hilabetetik gorako epean argitaratzea onartuko da soilik berariazko araudiak hala ezartzen duenean edo informazioa, ezinbestez, epe luzeagoan sortzen denean.

10. Informazio publikoa honako epe hauetan egonen da argitaratuta:

a) Izatezko egoerak deskribatzen dituen informazioa argitaratuta egonen da gutxienez ere egoera horiek irauten duten bitartean.

b) Arauei buruzko informazioa argitaratuta egonen da gutxienez ere haiek indarra duten bitartean.

c) Kontratu, hitzarmen eta diru-laguntzei buruzko informazioa argitaratuta egonen da haietatik heldu diren betebeharrekin irauten dutenean eta, gutxienez ere, haiek amaitu eta beste bi urtez.

d) Informazio ekonomikoa sortu zen unetik kontaktzen hasi eta gutxienez ere bost urtez egonen da argitaratuta.

e) Ingurumen- eta hirigintza-arloko informazioa argitaratuta egonen da indarra duen bitartean eta, gutxienez ere, hura amaitu eta bost urtez.

11. Araudi guztiaren bertsio "bateratua" argitaratuko da, argitaratutako testu guztiak azken bertsio gaurkotua izan dezaten. Ordenantzak eta erregelamenduak egiteko prozeduran emandako txosten guztiak, horren barne direla txosten fakultatibo edo boluntarioak ere, argitaratu egingen dira, bai eta araudiko eraginari buruzko oroitidazkiak eta, kasua bada, kontsulta-organoen irizpenak ere.

12. Izapidetzeetan jendaurrean egon behar duen dokumentazio guztia modu digitalean “zintzilikatu” beharko da, eta aukera emanen da alegazioak, iradokizunak eta oharrak modu elektronikoan aurkezteko, dela email bidez, dela jendaurrean jarritako testuari buruzko iruzkinak egiteko aplikazio informatikoen bitartez. Jendaurreko informazio-izapidea sare sozial nagusien bitartez zabaldu beharko da.”

Lau. Erredakzio berria ematen zaio 13. artikuluko a) letrari. Honako testua izanen du:

“a) Erakundeen antolaketa, antolaketaren egitura, adierazita zer eginkizun dituen organo bakoitzak, zer egoitza duen eta nola jarri beraiekin harremanetan, arduradunen identifikazioa, eta plantilla organikoa, lanpostuen zerrendarekin batera. Informazio hori, halaber, sozietate publikoei eta fundazio publikoei dagokienez ere emanen da jakitera. Organigraman, zerbitzuetako eta erabaki-organoei arduradun politiko eta funtzionario-arduradunak argitaratu beharko dira (kudeatzaileak, arloko buruak, zerbitzuburuak, atalburuak eta bulegoburuak), beren curriculum gaurkotuekin”.

Bost. 13. artikuluari zenbait letra eransten zaizkio. Eduki hau izanen dute:

“aa) Gobernukideen eta Administrazio gogikarguen, zuzendaritza-organoeiako titularren eta kabineteak osatu eta zuzendari, aholkulari mahai-kide nahiz aholkulariak diren edo pareko izaera duten behin-behineko langileen agenda instituzionalak.

ab) Gobernukideen eta Administrazio gogikarguen, zuzendaritza-organoeiako eta merkataritza-sozietateeiako titularren protokolo-gastuak, dietak eta gainerako gastuak, beren eginkizunetan dihardutela Nafarroako Foru Komunitatei kanpo egindako bidaietan eta joan-etorrietan egindakoak, haien xedea, data eta guztizko kostua adierazita.

ac) Zuzendaritza eginkizunetan diharduten funtzionarioen, zerbitzuko zuzendarien eta idazkari nagusi teknikoan ordainsariak, osagarriak, “kalte-ordainak eta dietak” barne, adierazita ordainsariak “gordinak” direla.

ad) Lanpostu guztien ordainsari gordinak argitaratzea, osagarri guztiak xehakatur, kasu bada, bai eta guztizko ordainsaria ere. Halaber, argitaratzea departamentu, organismo, entitate, merkataritza-sozietate, fundazio publiko eta partzuergoetan dauden langileen kopurua.

ae) Ibilgailuen parkeari eta haren osaerari, erabilerari eta gaurkotzeari buruzko informazioa (autoak, furgonetak edo bestelakoak).

af) Nafarroako Gobernuaren telefono-linea guztien informazioa, zenbakiaren pribatutasunari eutsiz baina mugikorren lineen titularrak, Internetarako sarbideak, faxak edo linea finkoak zehaztuz.

ag) “Informaziorako Sarbide-eskarien Erregistroa” sortuko da, maizen eskatzen den edo interes sozial handiena duen informazioa adierazita. Herritarrek aurkeztutako informazio-sarbiderako eskariak ez-onartzeko, baiesteko edo ezesteko eman diren ebazpenak jasoko dira erregistro horretan.

ah) 500 eurotik gorako emandako eta jasotako faktura guztiak. Izaera Pertsonaleko Datuak Babestari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetzen dela ziurtatuko da.

ai) Ingurumen- eta hirigintza-informazioa: emandako lizentziak, horren barne direla ingurumen-baimen integratuak eta ingurumen-lizentziak emateko espedienteen harira emandako txosten juridiko eta teknikoak; lurzorua udal ondarea osatzen duten ondasunak eta hirigintza-aholkuaren nahitaezko lagatzeen bidez jasotako ondasun edo diru-sarrera ekonomikoak; hirigintza-planak, hirigintza-kudeaketako tresnak eta hirigintza lizentziak eta hirigintza-legezketasuna berrezartzeko espedienteen baiespen- edo ezespen-prozedurak onesteko eta aldatzeko emandako txosten juridiko eta teknikoak.

aj) Aurrekontu-informazioa, halako moduz non betetze-gradua hiru hilabetez behin ezagutu ahal-ko baita.

ak) Barneko kontu-hartzaitzako organoek egindako eragozpen-txostenak, aurrekontu-aldaketetako eta gastu publikoaren kudeaketa kontrolatzeko espedienteetan emandakoak.

al) Higiezin errentatuen zerrenda, haien erabilerari edo zerbitzu publikoari aipatuta.

am) Publizitate instituzionalerako kanpainen kostua, kanpainaren kontzeptuak eta hedabide bakoitzari kontratatutako zenbatekoa xehakatur.

Sei. 17. artikuluko 1. idatz-zatiari zenbait letra gehitzen zaizkio. Eduki hau izanen dute:

“e) Lizitatzailen identitatea.

f) Esleipen-hartzailearen kaudimen tekniko eta ekonomikoa.

g) Prezioen berrikuspenak, esleipen-irizpideak –bai balioespen automatikokoak, bai balio-judizio baten pean jarritakoak– eta haien haztatzea.

h) Eskaintza ekonomikoan, proposamen teknikoan eta hobekuntzen alderaketa-taula, bidezkoa

bada; eskaintza bakoitzaren puntuazioa, irizpide bakoitza zehaztuta, eta zioen laburpena.

i) Kontratazio-espeditente guztietan emandako -txosten tekniko, juridiko eta ekonomikoak”

Zazpi. 20. artikuluko 1. idatz-zatiari letra berri bat gehitzen zaio. Hona edukia:

“g) Publizitatea emanen zaio diru-laguntza kudeatzeko eta justifikatzeko prozedurari: exekuzio-epea, ordainketa aurreratua edo kontura egindakoak, justifikatutako zenbatekoa, ordaindutako kopurua, itzulketa-ebazpenak eta ezarritako zehapenak”

Zortzi. Erredakzio berria ematen zaio 26. artikuluko 3. idatz-zatiko a) letrari. Honako eduki hau izanen du:

“a) Eskatzailearen nortasuna. Ez da nortasun-txartelaren zenbakia eskatuko; nahikoa izanen da izen-deiturak ematearekin”

Bederatzi. Erredakzio berria ematen zaio 28. artikuluko e) letrari. Honako testua izanen du:

“e) Prestatze faseko dokumentazioa, lantzen ari den materiala edo bukatu gabe dauden dokumentu edo datuak, administrazio espeditentearen parte ez direnak, eskuratzeko eskaerak.

Bukatu gabe dauden datutzat jotzen dira Administrazio Publikoaren barrenean oraindik lantzen ari diren datuak, haiei buruz inolako irizpen, -txosten edo onespenerik eman ez denean. Arrazoi horregatik ezesten baldin bada eskaera, ebazteko eskumena duen organoak ezespenean jakitera emanen du zein unitate ari den prestatzen material hori, eta eskatzaileari adieraziko dio noizko aurreikusten den bukatzea lanketa hori. Aginduzko -txostenak eta aginduzkoak izan gabe zuzenean edo zeharka ebazpenetarako zioa izan direnak –zerbitzuek berek emanak zein beste administrazio edo entitate publiko batzuek emanak izan–, ezin izanen dira jo izaera osagarri edo lagungarria duen informazioztat”

Hamar. 69. artikuluko 3. idatz-zatiari erredakzio berria ematen zaio. Hauxe da edukia:

“3) Ebazpena betetzen ez bada, Administrazio Publikoko organo eskudunak lehenengo idatz-zatian aipatzen diren entitateak errekerituko ditu, ofizioz edo eskatzailearen ekimenez, ebazpena bere terminoetan bete dezaten. Eskatutako informazioa zerbitzu publikoak ematen dituzten edo ahalmen administratiboak betetzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei eskatu behar zaien kasuetan, 15 egun naturaleko epea emanen da, eta ez-betetze kasuan, isun hertsatzaileak ezarriko dira”

Hamaika. X. titulu berria gehitzen da. Hona edukia:

“X. titulua
Nafarroako Foru Komunitateko Interes
Taldeen Erregistro Publikoa

74. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Interes Taldeen Erregistro Publikoa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Interes Taldeen Erregistro Publikoa (lobby-ak) helburu gisa izanen du bertan izena emanda egotea beren kasa nahiz besteren kontura Nafarroako Foru Komunitateko lurralde-esparruan lan egin eta arau juridikoen lanketan eta politika publikoen aplikazioan interes berekien, hirugarren pertsonen edo erakundeen interesen defentsan eta are interes orokorren defentsan ere, eragina izateko gaitasuna duten pertsonak eta erakundeak.

2. Erregistro horretan horien guztien eskubideak eta betebeharrak jasoko dira, eta haien jarduketari, kontrolari eta zehapenei buruzko informazio guztia Gobernu Irekiaren atarian argitaratuko da, bai eta erregistrotik kanpo daudenen zerrenda ere”

Hamabi. XI. titulu berria gehitzen da. Hona edukia:

“XI. titulua
Arau-haustek eta zehapenak

75. artikulua. Araubidea

1. Foru lege honetan ezarritako betebeharren ez-betetzea titulu honetan xedatutakoaren arabera zehatuko da, gerta daitezkeen bestelako erantzukizunak ezertan ere kendu gabe.

2. Foru lege honetan tipifikatutako arau-hausteen arloko zehapen-ahalmena titulu honetan eta Administrazio Publikoen araubide juridikoaren eta zehapenetako prozedura administratiboaren arloko araudian ezarritakoaren arabera baliatuko da.

3. Foru lege honetan aurreikusitako arau-haustek eta zehapenak Administrazio Publikoen araubide juridikoaren eta zehapenetako prozedura administratiboaren arloko araudian ezarritakoaren mende egonen dira.

76. artikulua. Erantzuleak.

1. Arau-hausteen erantzule dira, ez-betetze soilaren mailan bada ere, foru lege honetan tipifikatutako egiteak edo ez-egiteak gauzatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, edozein dela ere haien izaera.

2. Bereziki, 77. artikuluan aurreikusitako diziplinako arau-hausteen erantzule dira:

a) Goi-kargudunaren izaera duten pertsonak.

b) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren eta 2. artikuluan jasotako entitate eta erakundeen zerbitzuko langileak.

77. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

1. Goi-kargudunaren izaera duten pertsonen eta foru lege honen aplikazio-esparruan sartutako entitateen zerbitzuko langileen diziplinako arau-hausteak dira ondoren aipatzen direnak:

A. Goi-kargudunaren izaera duten pertsonak:

1) Arau-hauste oso larriak:

a) Lege honetako II. eta III. tituluetan aipatzen den informazioa argitaratzeko betebeharra ez-betetzea, bi urteko epean organo eskudunen errekerimendu espresa hirutan edo gehiagotan bete ez denean.

b) Bi urteko epean hirutan edo gehiagotan ez-betetzea informazio publikoa eskuratzeko emandako ebazpenak, aurkeztu diren erreklamazioak direla eta.

2) Arau-hauste larriak:

a) Lege honetako II. eta III. tituluetan aipatzen den informazioa argitaratzeko betebeharra behin eta berriz ez-betetzea.

b) Aurkeztu diren erreklamazioak direla-eta informazio publikoa eskuratzeko emandako ebazpenak behin eta berriz ez-betetzea.

c) Informazio publikoa eskuratzeko eskaerak epean ebazteko betebeharra behin eta berriz ez-betetzea.

d) Eskatutako informazioa emateari edo kasuko eginkizunak betetzeko eskatutako lankidetzari behin eta berriz ezezkoa ematea.

e) Informazioa argitaratu edo ematea, egiazkotasun printzipiotik heldu diren betekizunak urratuz.

3) Arau-hauste arinak:

a) Lege honetako II. eta III. tituluetan aipatzen den informazioa argitaratzeko betebeharra ez-betetzea.

b) Informazio publikoa eskuratzeko eskaera epean ebazteko betebeharra justifikaziorik gabe ez-betetzea.

B. Lege honetako 2. artikuluan aipatutako entitate eta erakundeen zerbitzuko langileak:

Langileei aplikatzekoa zaien araudian jasotako arau-hauste oso larriak, larriak eta arinak, kasuan kasu dagokien funtzionario-araubidearen, estatu-araubidearen edo lan-araubidearen arabera.

2. Aurreko idatz-zatian aurreikusitako diziplina-arauek direla eta, honako zehapen hauek ezarri ahalko dira:

A. Goi-kargudunaren izaera duten pertsonak:

a) Arau-hauste arinak ohartarazpena eginez zehatuko dira.

b) Arau-hauste larriak zehatuko dira legearen ez-betetzea deklaratu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu.

c) Arau-hauste oso larriak zehatuko dira legearen ez-betetzea deklaratu, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu, arau-hauslea kargutik kenduz eta hiru urtera bitarteko epean goi-kargu baterako izendatzeko ezintasuna ezarri.

B. Lege honetako 2. artikuluan aipatutako entitate eta erakundeen zerbitzuko langileak:

Langileei aplikatzekoa zaien araudian jasotako arau-hausteak, kasuan kasu dagokien funtzionario-araubidearen, estatu-araubidearen edo lan-araubidearen arabera.

78. artikulua. Enpresa pribatuei, enpresa misto-
ei, zuzenbide publikoko partzuergo eta korporazioei, alderdi politikoei, sindikatu-
ei eta enpresa-erakundeei aplikatzekoak zaizkien zehapenak, foru lege honetan ezarritako betebeharrak ez-bete-
zteagatik.

1. Honako hauek dira goi-karguen edo administrazio publikoen zerbitzuko langileen izaera ez duten pertsona juridikoei aplikatu ahalko zaizkien zehapenak:

a) Arau-hauste oso larriak egiteagatik:

Lehena. 6.001 eta 12.000 euro bitarteko isuna.

Bigarrena. Administrazioarekin kontratatu ahal izatearen etendura, gehienez ere sei hilabetetarako.

Hirugarrena. Urtebete eta bost urte bitarteko epean laguntza publikoen onuradun izateko inhabilitazioa.

Laugarrena. Interes Taldeen Erregistroen izen-ematea behin betiko baliogabetzea.

Bosgarrena. Emandako diru-laguntzaren itzulketa osoa edo itzulketa partziala, edo, kasu bada, ezarritako kontratua, hitzarmena edo lotura suntsiaraztea, haiek araupetzen dituen egintza edo tresna administratiboan ezarritako terminoetan.

b) Arau-hauste larriak egiteagatik:

Lehena. 600 eta 6.000 euro bitarteko isuna.

Bigarrena. Laguntza publikoen onuradun izateko inhabilitazioa, gehienez ere urtebetez.

Hirugarrena. Interes Taldeen Erregistroen izenematea gehienez ere urtebetez etetea.

Laugarrena. Emandako diru-laguntzaren itzulketa osoa edo itzulketa partziala, edo, kasu bada, ezarritako kontratua, hitzarmena edo lotura suntsiaraztea, haiek araupetzen dituen egintza edo tresna administratiboan ezarritako terminoetan.

c) Arau-hauste arinak egiteagatik:

Lehena. Ohartarazpena.

Bigarrena. Ez-betetzearen deklarazioa, publikitatearekin.

2. Zehapenaren norainokoa erabakitzeke aplikatzekoak diren irizpideak araubide juridikoari eta administrazio-prozedurari buruzko legedian ezarritakoak dira. Halaber, baloratzen da interes publikorako kalteak egotea, jokaerak herritarrengan sortzen duen eragina eta, kasu bada, eragindako kalte ekonomiko edo ondarezkoak. Honako hauek izanen dira arau-hausteak:

1) Arau-hauste oso larriak:

a) Lege honetako II. eta III. tituluetan aipatzen den informazioa argitaratzeko betebeharra ez-betetzea, bi urteko epean organo eskudunen errekerimendu espresa hirutan edo gehiagotan bete ez denean.

b) Bi urteko epean hirutan edo gehiagotan ez-betetzea informazio publikoa eskuratzeko emandako ebazpenak, aurkeztu diren erreklamazioak direla eta.

2) Arau-hauste larriak:

a) Lege honetako II. eta III. tituluetan aipatzen den informazioa argitaratzeko betebeharra behin eta berriz ez-betetzea.

b) Aurkeztu diren erreklamazioak direla-eta informazio publikoa eskuratzeko emandako ebazpenak behin eta berriz ez-betetzea.

c) Informazio publikoa eskuratzeko eskaerak epean ebazteko betebeharra behin eta berriz ez-betetzea.

d) Eskatutako informazioa emateari edo kasuko eginkizunak betetzeko eskatutako lankidetzari behin eta berriz ezezkua ematea.

e) Informazioa argitaratu edo ematea, egiazkotasun printzipiotik heldu diren betekizunak urratuz.

3) Arau-hauste arinak:

a) Lege honetako II. eta III. tituluetan aipatzen den informazioa argitaratzeko betebeharra ez-betetzea.

b) Informazio publikoa eskuratzeko eskaera epean ebazteko betebeharra justifikaziorik gabe ez-betetzea.

79. artikulua. Prozedurak.

1. Foru lege honetan ezarritako diziplina- eta zehapen-ahalmenez baliatzeko prozedurak ofizioz hasiko dira, eskumena duen organoak erabakita, bai bere ekimenez, bai beste organo batzuen eskaera arrazoituaren bidez edo salaketa bidez ere.

2. Foru lege honetan ezarritako diziplina-ahalmenez baliatzeko prozedura, arduraduna goi-kargua den pertsona bat denean, araudian ezarritakoari lotuko zaio.

Ustezko erantzulea Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren zerbitzuko langilea denean, prozedura langile funtzionarioentzat, estatutupeko langileentzat nahiz lan-kontratadun langileentzat ezarritakoari lotuko zaio, kasuan kasu.

80. artikulua. Organo eskudunak.

Honako hauek dira diziplina-prozedurak hasteko eta ebazteko organo eskudunak:

a) Nafarroako Gobernua, erantzulea goi-kargua denean.

b) Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua.

c) Kasuan kasu aplikatzekoa den araudian ezarritakoa, lege honen aplikazio esparruan sartutako entitate eta erakundeen zerbitzuko langileak direnean.

81. artikulua. Isunen jakinarazpena.

Foru lege honetan aurreikusitako arau-hauste oso larriengatik edo larriengatik ezartzen diren zehapenak Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko dira; hori, halere, ez da eragozpena izanen Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratzeko, hala ezarri den kasuetan."

Hamahiru. Laugarren xedapen gehigarria kentzen da. Gardentasuna beste erakunde batzuetan sustatzea.

Lehen xedapen gehigarria. Interes Taldeen Erregistro Publikoaren garapena.

Nafarroako Gobernuak, foru lege hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epean, 7.4 artikuluan aipatzen den Interes Taldeen Erregistro Publikoa sortuko du.

Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen erreforma.

Urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea erreformatzeko foru lege proiektu bat aurkeztuko du Nafarroako Parlamentuan. Haren helburua izanen da Nafarroako toki entitateen jardunean txertatzea foru lege

honetan gardentasunari, herritarren parte-hartzeari eta elkarlanari eta herritarrek informazio publikoa eskuratzeko duten eskubideei buruz jasotako printzipio eta aurreikuspenak, bidezko diren berezitasunak erantsita.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek Foru Lege proposamena aurkeztu dute, Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Lege proposamena, Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duena

ZIOAK

Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea hainbat arrazoiengatik onetsi zen; besteak beste, konponbideak erabakitasunez bilatzeko

taxi-zerbitzuak Iruñean eta Iruñerrian bizitako egoerarentzat.

Foru lege horren VII. kapitulua udalen arteko koordinazioaz ari da. Halatan, udal interesdunek hitzarmenak egin ditzakete elkarrekin koordinatzeko, eta aurrerago, nahi izanez gero, Baterako Zerbitzurako Eremuak osa ditzakete, eta udalez gaindiko eremu horietatik irten gabe egiten diren taxi zerbitzuak hiriko zerbitzutzat joko dira. Arau orokor hori osatzeko, foru lege horren xedapen gehigarri bakarrean arau bereziak ezarri ziren, Baterako Taxi Zerbitzurako Iruñerriko Eremuan aplikatuko direnak.

Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren urtarrilaren 29ko 19/2016 epaiak ezetsi egin du Iruñerriko Mankomunitateak Nafarroako Gobernuaren 2013ko ekainaren 26ko Erabakiaren aurka jarritako errekurtsioa. Erabaki haren bidez, ezetsi egin zen Mankomunitateak egindako eskaria, Etxauriko udalerrira Baterako Taxi Zerbitzurako Iruñerriko Eremuan sartzekoa.

9/2005 Legeko 48. artikulua baterako zerbitzu eremu bat sortzeko edo/eta aldatzeko ezartzen duen "lurralde-koherentziaren" betekizuna aztertzen du 19/2016 epaiak, eta ondorioztatzen du "etenik gabeko hiri tarte bat egotearen exijentziak osatzen (eta egituratzen)" duela "lurralde-koherentzia" hori, eta halaber dio "etenik gabeko hiri tarte baten exijentziak" lurralde-koherentzia ematen diola "hiriko" taxi zerbitzuaren prestazioari.

Interpretazio judizial honek arazo bat planteatzen du aurrena: "etenik gabeko hiri tarte" ez da existitzen kontzeptu juridiko gisa, ez baitago inolako araurik kontzeptu hori zer den adierazten duenik edo kontzeptua definitzen duenik. Hortaz, kon-

tzeptu juridiko zehaztugabe baten aitzinean gaude. Bestela esanda, epaiak “etenik gabeko hiri tarteak” kontzeptu juridiko zehaztugabea darabil “lurralde-koherentzia” kontzeptu juridiko zehaztugabea definitzeko; hortaz, zail-zaila da lurralde-koherentziaren betekizuna epai horretan definitzen den moduan aplikatzea. Horrek esan nahi du ez litzatekeela aski izanen jarraitutasun geografikoa gertatzea Baterako Taxi Zerbitzurako Lurralde Eremua osatzen duten udalerrien artean; aitzitik, epai-leen interpretazio horren arabera, beharrezkoa izanen litzateke “hiri”-jarraitutasuna gertatzea, ezinezkoa delako “etenik gabeko hiri tarte” bat egotea bi udalerriren edo gehiagoren artean ez baldin badute etenik gabeko lurralde bat osatzen.

19/2016 epaiak dakarren ondorio nagusia da zeharo mugatzen duela Baterako Taxi Zerbitzurako Lurralde Eremurik sortzea edo handitzea; izan ere, ia ezinezkoa izanen da (erabat ezinezkoa dela ez esatearren) Nafarroan egun “etenik gabeko hiri tarteak” egotea, zuzenean eraginez eremu horien lurralde-esparruaren aldaketetan.

Baterako Zerbitzurako Iruñerriko Eremuaren kasuan, ez litzateke posible izanen horren lurralde-esparrua aldaketa, zeren bere egungo esparruak jada hartzen baititu “etenik gabeko hiri-ehuna” osatzen duten udalerririk guztiak. Izan ere, izendapen horretatik at egonen litzatekeen udalerririk bat hartzen du. Hortaz, eremu horrekiko etenik gabeko lurraldea eta jarraitutasun geografikoa daukaten udalerririk ezin dira bertan sartu, ez baitago “etenik gabeko hiri tarterik” eta, horrenbestez, ez baita lurralde-koherentziaren betekizuna betetzen.

Zehazki, honako hauek dira Baterako Zerbitzurako Iruñerriko Eremuarekiko etenik gabeko lurraldea eta jarraitutasun geografikoa daukaten udalerririk eta Mankomunitateak ematen dituen zerbitzuren batean jada sartuta daudenak (eta ezin izanen liratekeenak gaur egun bertan sartu): Adios, Anue, Biurrun-Olkotz, Etxauri, Goñi, Itza, Txulapain, Legarda, Elo, Odieta, Olaibar, Ollo, Tiebas-Muru Artederreta, Ukar, Uterga eta Zabaltza.

Ondorio, horrek, ordea, ez die soilik eraginen Nafarroan dagoen eremu bakarrekiko udalerririk; izan ere, Nafarroako beste eremu edo eskualde batzuetan eremu berriak sortu ahal izatea oso mugatuta egonen da, zeren “hiri-eremuetan” “etenik gabeko hiri tartearen” betekizuna betetzen dela ulertuta ezar litezkeen eremu bakarrak izanen lirateke (adierazten den lurralde-eremuarekin):

– Baterako Zerbitzurako Lizarra, Aiegi eta Villatuertako Eremua.

– Baterako Zerbitzurako Tafalla eta Erriberriko Eremua.

– Baterako Zerbitzurako Tutera, Fontellas eta Murchanteko Eremua.

Eta, behin sortuta, eremu horiekiko etenik gabeko lurraldea eta jarraitutasun geografikoa daukaten udalerririk ezin izanen lirateke bertan sartu, ez baitago “etenik gabeko hiri tarterik” eta, horrenbestez, ez baita lurralde-koherentziaren betekizuna betetzen. Hori guztia gertatuko litzateke Nafarroako zenbait alderditan baterako taxi zerbitzurako proposamenak aurkeztu diren une batean, non ezin izanen bailitzateke aurrera atera urtarrilaren 16ko 19/2016 epai horretatik heldu den arazo juridiko honen erruz.

Artikulu bakarra. Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legeko honako artikulu hau aldatzen da:

48. artikulua. Udalen arteko koordinazioa. Baterako zerbitzurako eremuak.

1. Baterako zerbitzurako eremu batean esku-menak dituzten udalerek edo toki entitateek, garraioen arloan eskuduna den departamentuarekin batera, eta Nafarroako Taxien Kontseiluak txostena egin ondoren, administrazioen arteko koordinaziorako formulak ezarri ahal izanen dituzte beren udalerrietako taxi zerbitzua emateko.

Zerbitzua antolatu eta kudeatzeko koordinazioaren nondik norakoak, betiere, formalizatzen diren lankidetzak-hitzarmenetan zehaztuko dira, edo indarra duen araudian aurreikusitako bestelako tresnetan, eta, betiere, foru lege honetan xedatutakoarekin bat etorriko dira.

2. Zenbait udalerritako taxi zerbitzuek elkarrengan eragina duten alderdietan, halako moduan non zerbitzu horien antolamendu egokia udalerririk horietako bakoitzaren interesetik haragokoa baita eta eskariaren ezaugarriek zerbitzuaren udalez gairik planteamendu bat exijitzen baitute, baterako zerbitzurako eremuak ezarri ahal izanen dira. Hartara, baterako zerbitzurako eremuko toki entitate eskudunak emandako lizentzia duten ibilgailuek ahalmena izanen dute eremu horretako mugarte osoan zerbitzuak egiteko.

Baterako zerbitzurako eremu bat ezarri gero, bertako mugak gairik gabe egiten diren taxi zerbitzu guztiak hiriko taxi zerbitzutzat joko dira.

Baterako zerbitzurako eremu bat ezarri ahal izateko, baldintza hauek hartuko dira kontuan: hura osatuko duten udalerririk jarraitutasun geografikoa eta bideragarritasun ekonomikoa eta kudeaketaren bideragarritasuna. Halaber, aintzat hartuko

da eskaria egiten duten udalerrak jada existitzen den udalez gairik entitate bateko kideak izatea, baldin eta foru lege honetako 50. artikuluan ezarritako eskumenak eta araubide ekonomikoa bere gain hartzen baditu.

Xedapen iragankorra. Iruñerriko Mankomunitateko kide diren eta uztailearen 6ko 9/2005 Foru Legearen xedapen gehigarri bakarreko 1. idatz-zatian sartu ez ziren udaldiru hiru hilabeteko epean eskatu ahal izanen dute, foru lege hau indarrean sartzen denetik aitzina, eskualde horretako baterako zerbitzurako eremuan sartzea; horretarako, aski izanen da kasuko udalaren osoko bilkurak erabaki

hori hartzea eta erabaki hori Mankomunitateari jakinaraztea eta horren berri Nafarroako Gobernuari ematea, Gobernuak bestelako izapiderik gabe erabaki dezan hartan behin betikoz sartzea. Epe hori igaroko balitza sartzea eskatu gabe, xedapen gehigarri bakar horretako 6. idatz-zatian ezarritako prozedurari jarraikiko zaio eskari berrien kasuan.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, inbestidura-hitzaldiko proposamenik esanguratsuenen garapena dela-eta Gobernuak izandako jarrerari buruzkoa.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, inbestidura-hitzaldiko proposamenik esanguratsuenen garapena dela-eta Gobernuak izandako jarrerari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Lau alderdiren arteko programa-akordio bati esker, Uxue Barkos buru duen gobernuak urtebete eginen du aurki kudeatze-lanetan. Programa-

akordioko proposamenak betetzetik urrun gaude legegintzaldiaren laurdena betetzean. Jasotako herentzia aipatu ohi du Gobernuak, bere geldotasuna justifikatzeko. Alabaina, PSN--PSOEek orain dela hiru urte jada ohartarazi zuen, Kontuen Ganberak bezala, Nafarroaren finantza-egoera zailaz. Egungo Ogasuneko kontseilariak ere bere garaian adierazi zuen Gobernuaren programa "Errege Magoentzako gutun bat" bezalakoa zela. Gobernuak errealitatea ukitu duenez, jakin nahi dugu zer garapen izan duten inbestidurako hitzaldian egindako promesek.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldea Nafarroako Gobernuko lehendakariari jabeltzen zaio, jakiteko Gobernuak zer jarrera duen inbestidurako hitzaldian egindako proposamen esanguratsuenen garapenari dagokionez. Esate baterako: Mendekotasunari buruzko Foru Legea; Oinarrizko Errenta Unibertsala; Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bultzada; udalenzako finantza-babesa eta tokiko mapa; zerbitzu publikoen zuzeneko kudeaketa; Gardentasunari buruzko Foru Legea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 7an

Eleduna: María Chivite Navascués

Jabeldura, Nafarroako hezkuntza-sistemaren ebaluazioari dagokionez Hezkuntza Departamentuak garatuko duen politika orokorrari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako hezkuntza-sistemaren ebaluazioari dagokionez Hezkuntza Departamentuak garatuko duen politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkezten du:

Hezkuntza Ministerioa eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua hainbat erabaki hartzen ari dira Espainia osoko eta Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza-sistemaren ebaluazioei dagokienez.

Hori dela-eta, jakin nahi dugu ea Hezkuntza Departamentuak zer politika orokor garatuko duen Nafarroako hezkuntza-sistemaren ebaluazioari dagokionez.

Corellan, 2016ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du funts bat sor dezan amiantoaren biktimei kalte-ordaina emateko.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen baitu funts bat sor dezan amiantoaren biktimei kalte-ordaina emateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

1994tik 2008ra bitarte, 3.943 heriotza gertatu ziren Espainian, amiantoari zuzenean loturik. XX. mende guztian zehar 2.600.000 tona amianto inportatu ziren. Kontsumo-gailurra 1970etik 1980ra bitarte gertatu zen. Hiru laurden inguru eraikuntzarako zuntz-zementua egiteko erabili zen; beste herrialde batzuetako kopuru bertsua, hain zuzen ere.

Zientifikoki frogatu da erlazio zuzena dagoela amianto-kontsumoaren eta mesoteliomaren artean, eta uste da Espainian 700 pertsona ingururi diagnostikatzen zaiela urtero minbizi mota hori.

Egoera hau Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan dagoenaren antzekoa da; halere, Espainiak oraindik ere ez dauka konpentsazio-funtsik.

Amiantoagatik patologien urteroko kasu-kopuruaren estimazio bat egiten baldin bada, ondoriozta liteke kalte-ordaina eman beharreko 7.154 kasu gertatu ahal izan direla 2003tik 2009ra bitarteko urteetan. Datu horietatik ondoriozta liteke 2023ra bitarte jarraituko dugula kasu horien gorakada ikusten, eta horrek argi uzten du Espainian konpentsazio-funts bat abian jarri beharra dagoela, Frantzia, Holanda edo Belgikan dauden gisakoa. 2023rik aitzina, kopuru horiek egonkortu egingen dira eta beharke joera azkar bat hasiko da. Horiek dira aurreikuspenak.

Amiantoa gaur egun jada ez da arazo prebentibo gisa existitzen. Arazoa datza, batez ere, iraganen amiantoaren eraginpean jartzetik heldu diren gaixotasunetan, orain azaltzen ari baitira eta intentsitate are handiagoz azalduko baitira. Pairatutako kalteen ondorioz, auzirate ugari sortzen ari dira; hartara, hobetik gabeko konpentsazio-funts bat sortu beharra dago. Auzien kopururik handiena amiantoarekin harremanetan egon ahal izan diren langileei dagokie. Kontuan eduki behar da, halaber, lan-esparrutik kanpo izandako kontaktua, familia-esparrukoa (arropa etxean garbitzetik heldu dena) edo ingurumen-esparrukoa, sistemak orain ez baititu horiek arautzen.

Lan-istripuen kasuan ez bezala, gaixotasun profesionalen kasuan kalteak ez dira berehalakoak, urte batzuk geroago azaltzen baitira –amiantoaren kasuan, hamarkadak geroago–, enpresa asko jada desagertu direnean.

Halere, arestian aipatutako datu guztiek agerian uzten dutenez, ukitutako langile-kopurua hain

da esanguratsua non justifikatuta baitago konpentsazio-funts bat ezartzea. Gainera, arazo nagusia da eraginpetasuna gertatu zeneko enpresa asko jada desagertuta daudela gaixotasuna azaltzen denean –orain dela 20 eta 50 urte bitarte gertatutako eraginpetasunez ari gara zenbait kasutan–, edo langileak enpresa bat baino gehiagotan ibili ahal izan direla beren lan-bizitzan zehar, eta horrek zailagoa egiten du zehaztea nongo eraginpetasun zehatzak ekarri zuen gaixotasuna.

Horrek zailtasun gehigarri bat dakar, ukituei legezkiekeen kalte-ordainak ordaintzea zer enpresari dagokion identifikatzeari begira. Enpresa horietako askok, urteak joan urteak etorri, baliteke birmoldatzeak, banaketak, xurgatzeak, izen-aldaketak edo jarduera-lekualdatzeak pairatu izana; alegia, erabat zaila izan liteke identifikatzea une honetan norena den bere garaian langilearen enplegatzailea zenaren ardura, eta gaurko ondorengoarena. Horrek berekin dakar ukituek edo haien familiartekoen detektibe-lana egin behar izatea, ahalegin ikaragarri eta zaila egin behar izatea enpresa arduraduna identifikatzeko, halako moduan non askotan ezinikoa baita erreklamatzeari, eta kaltetua konpentsaziorik gabe gelditzea, bere osasunak pairatutako kaltea gorabehera.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du Amiantoaren Biktimitasun Kalte-ordaina emateko Funtsekin sor dezaten, xede izan den erabateko erreparazioa ematea bai amiantoaren eraginpeko gaixotasun profesionala aitortzea lortu duten pertsonen, bai Espainian amiantoaren eraginpean egoteagatik kaltetutakoen.

Iruñean, 2016ko ekainaren 3an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte ekintzaitzako ekimenak susta eta babestu ditzan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gizarte ekintzaitzako ekimenak susta eta babestu ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Enpresa Soziala parte-hartze eta gizarteratze aktiboko guneak garatzen laguntzeko estrategia gisa aurkeztua da. Antolaketa-aukera gisa hartu izan da, bai eta lan-iturriak ekoizteko estrategia gisa ere. Hasiberritan bada ere, hautabide gisa hedatzen hasi da Ongizatearen Estatuaren krisiaren nahiz merkatuak sortutako desberdinkerien aitzinean. Izan ere, Nafarroan badira arrakasta izan duten gisa horretako enpresak, jada sendo finkatuta daudenak.

Enpresa Soziala ikus dezakegu ongizatearen gizarte-ereduaren krisirako ordezeko proposamen gisa, zeinak, herritarren elkartasunezko ahalegin baten bidez, ekonomiaren eta gizakiaren arloen arteko lotura berreskuratuta, halako ikuspegi bat berrabiarazten baitu zeinetan elkarrekikotasuna, jasangarritasuna eta elkartasuna bezalako baloreak gailentzen baitira, horrela bereizirik gizarte-babes publikoko sistema ohikoetatik (asistentzialismoa), abiapuntu hartuta subjektuaren kontzeptu guztiz ezberdin bat, gizakia ulertzen baitu subjektu aktibo eta protagonista bezala, bere proiektuaren egile dena.

Erronka horrek proposatzen du, elkarre-mundutik hasita, gizarte-ekintzako arlo bat berreskuratzea, zeinetan argiro definitu ahalko den eskuratu nahi den gizarte-proiektua, berezko nortasunarekin, tresna bat izanik sozializazioa sortzeko, gizarte-trukaketa lortu eta ugaltzeko, interakzioa eragiteko, eta parte-hartzaileen arteko lankidetzeta eta lotura sozial eta solidarioak sustatzeko. Modu horretan elkarrearen onurak berreskuratzen ditu, giza duintasuna eraikitzeko eta denontzako aukera-berdintasuna duen gizarte bat erdiesteko tresna bezala.

Enpresa sozialak berezko ezaugarriak ditu; esaterako, helburu ekonomikoak zein sozialak lortzea –adibidez, zailtasunak dituzten pertsonak lan-merkatuan sartzea–; enpresa sozialetik lanerako gaikuntza eta prestakuntza ematen ditu; aukera-berdintasuna bermatzen du; produktibitatearen eta sormenaren subjektu bihurtzen ditu kredituaren subjektu izatera ezin iritsi direnak, edo gizarte-laguntzako programen subjektu besterik ez direnak; bere kideek zuzeneko parte-hartzea dute, eta ez dira akziodunak, baizik eta enpresan modu aktibo eta demokratikoan parte hartzen dute... Azken finean, enpresa sozialak behar kolektibo asegabei erantzuten die, ondasun eta zerbitzu tradizionalak eta berritzaileak ekoiziz.

Europako Batzordeak gizarte-ekimenaren aldeko lan ildo bat du, ekintza-ibilbide batzuk definitzen dituena, enpresa sozialen egoera hobetzeko asmoz. Antolaketarako aukera gisa, gizartearen, sustapenaren eta komunitatearen arloetako helburuak zehaztea ahalbidetzen du, eta estrategia bat proposatzen du desabantaila edo bazterketa egoeran dauden pertsonentzako eta taldeen-tzako bilera- eta inklusio-guneak sortzeko, lan iturriak eta eskubide sozialak sortuz, honako helburu hauekin:

- Lanbide-sustapen bat sortzea, berez iraunen duena, pertsonen autonomia errazteko.

- Laneratzea erraztea, osasuna gordetzeko funtsezko faktore gisa.

- Ekintzaitzaren kultura bultzatzea, gizarte arazoak direla eta (langabezia, ezgaitasuna, gaitasun gutxiak...) baztertzeko-arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko eta birgizarteratzeko ildo proaktibo gisa.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gizarte ekintzaitzako ekimenak susta eta babes ditzan, bai eta, halaber, gizarte enpresako geroagoko fase guztiak, kalitatezko enplegu egonkorra lortzeko moduko aukera berritzaile gisa, honako hiru helburu nagusiekin:

- Mendekotasunerako arreta eta autonomiaren sustapena.

- Bazterketa-egoeretarako arreta eta gizarteratzearen sustapena. .

- Babesgabetasuneko eta larrialdi sozialeko egoeretarako arreta.

Iruñean, 2016ko ekainaren 3an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ubidearen bigarren fasea Pitillasen eta Buñuelen artean eraikitzeko proiektuaren idazketa kontrata dezan.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Ubidearen bigarren fasea Pitillasen eta Buñuelen artean eraikitzeko proiektuaren idazketa kontrata dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ubidearen bigarren fasea Pitillasen eta Buñuelen artean eraikitzeko proiektuaren idazketa kontrata dezan.

Ura beharrezko baliabide bat da, ezinbestekoa, berriztagarria, hauskorra eta foru komunitate-

an modu oso gorabeheratsuan banatua dagoena. Pirinio aldean negualdian ugaria bada ere, lurraldearen beste muturrean, hegoaldean, Erriberan, guztiz kontrako egoera dugu. Udan arazoak izaten dira, alegia, gabezia, lehorteak eta horniduraren kalitaterik eza.

Erriberan aspaldikoak dira ur premiak. Dagoen beharraren gaineko zalantzarik ez du inork. Irageanean zenbait ubide erabilita, Lodosakoa, Bardeakoa eta are Inperiala ere, ur gabezia hein batean samurtu zen, eta nekazaritzako industriaren garapena ahalbidetu zen. XX. mendean zehar hiriko zein industriako edo ureztaketako beharrak handitu zirenez, beharrezkoa izan zen urtegi bat eta ubide bat planifikatzea.

Nafarroak, Itoizko urtegiaren eta ubidearen bidez, bere etorkizuna bermatu du arlo hidrikoan, eta xede horrekin nafar lurralde osora iristeko plana egin zen.

Ubidearen lehen fasea eraikiz, eta fase horretan egiten ari den zabalpenaz, Urrotz aldean, Iruñean, Izarbeibarren, Nafarroako erdialdean eta Lizarrerriko zati handi batean, konponbidea lortu da gaurko beharretarako eta etorkizuneko eskarierarako.

Izarbeibarren eta Nafarroako erdialdean 22.000tik gora hektarea berri ureztatzen ari dira ubidearen lehen faseari esker. Gainera, edateko uraren hornidura-arazoak konpondu dira Urrotz aldean, Iruñeko merindadean eta Erriberriko merindadeko herrietan.

Lehen fasearen zabalpena bukatzen denean, ureztalurreko 15.000tik gora hektarea berri egonen dira Lizarrerrian, eta edateko ura ez da jadanik arazo bat izanen merindade horretako jende askorentzat. Iruñean eta Iruñerrian ez da berriro ur hornidurako arazorik egonen, arlo horretako edozein gabezia Itoitz-Ubidearen bidez konponduko delako.

Nafarroako Ubidea osatzeko eta obraren osotasunari zentzua emateko, bakarrik gelditzen da azken tartea, "bigarren fasea" izeneko, bukatzea. Obra hori bukatuz gero, onura Erribera osoak hartuko luke, bertan metatu izan baitira hiriko horniduraren, kalitatearen eta eskaera igoeraren arazo historikoak.

Erriberako udalerrri askotan, azken hamarkadetan, hiriko horniduraren arazoak larriak izan dira, gero eta ohikoagoak, eta hobekuntzak eskatzen dira, kalitatearen zein kantitatearen aldetik.

Nafarroako ekonomiaren oinarriak, hein handi batean, nekazaritzaren, elikagaien eta nekazaritzako industriaren sektoreak dira. Azken hamarkadetan sektore horren eskaera izan da ureztalur gehiago egotea, ekoizpen handiago lortzeko eta, horren ondorioz, hazkunde ekonomiko handiagoa, ez bakarrik Erriberarentzat, baizik eta Nafarroako ekonomia osoarentzat.

Kontuen Ganberak, egin zituen azterlanetan, egiaztatu zuen Nafarroako Ubidearen bidez, egin da zegoen fasean, laboreen balioa lau halakoa bilakatzen zela, eta tributuen diru-bilketa bezalaxe. Hortxe dugu nekazaritza-sektorerako ur-horniduraren onuren froga bat.

Etorkizuneko obra-planifikazioei begira, uraren azkeneko prezioa minimizatzeko bide egokiena izan beharko litzateke ubideari dimentsio handiena ematea haren bigarren fasean, behin Itoitzko irteeratik kendu ondoren lehen faseko onuradunen eskaerei erantzuteko behar diren emariak, eta lehen fasearen zabalpenari dagozkionak.

Azkeneko tarte horren emari-ahalmen handiagoaren bidez merkatu eginen litzateke ur metro

kubikoaren azkeneko prezioa, eta garapenerako aukera handienak eskainiko litzuzke. Pentsaezina da ubidearen neurriak murriztea, horrek ekarriko bailuke Erriberari esleitutako emaria gutxitzea.

Nafarroako Gobernuak lehendakariordeak joan den azaroan Tuteran adierazi zuen ez zegoela ubidearen bigarren fasea eraikitzeke proiekturik. Horrek esan nahi du ez dakigula bigarren fase horretarako aurrekontua zein den eta, beraz, ez dagoela zehaztuta ez haren trazadura, ez eta haren diseinua ere, garraiatuko duen emariari dagokionez; eta, horren ondorioz, ur metro kubikoaren azkeneko prezioan izanen duen eragina ere ez.

Erabaki proposamena:

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzeke proiektuaren idazketa kontrata dezan.

2. Proiektua ahal den gehieneko emarirako taxutu dadin, Itoitzko urtegiko irteeratik kendu ondoren lehen faseko (Iruña eta Nafarroako erdialdea) eta lehen fasearen zabalpeneko (Lizarrerria) onuradunen eskaerei erantzuteko behar diren emariak.

3. Proiektu globala tarte edo azpiproiektu ezberdinetan idatz dadin, unitate beregain edo azpifase gisa, obraren mailakako exekuzioa Nafarroako Gobernuaren eta Canasa sozietate publikoaren egoera ekonomiko-finantzarioari egokitu ahal izateko.

4. Azterlanak egiten jarrai dezan, Erriberako herrietan etorkizunean izanen diren hiri- eta industria-konsumorako eskaerei eta haiek ubidetik asezteko moduei buruzkoak.

5. Azterlanak egiten jarrai dezan, ubideko uraren balizko onuradunentzat Erriberan ureztalurremu berriak zehazteari begira.

Iruñean, 2016ko ekainaren 7an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza psikosozialeko estrategia bat ezar dezan, hipoteka-betearazpeneko edo alokairua ez ordaintzeagatiko prozesuek ukitutako pertsonen pairatzen dituzten kalteen prebentzioa eta murrizketa eta pertsona horientzako babesa jasoko dituen.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita laguntza psikosozialeko estrategia bat ezar dezan, hipoteka-betearazpeneko edo alokairua ez ordaintzeagatiko prozesuek ukitutako pertsonen pairatzen dituzten kalteen prebentzioa eta murrizketa eta pertsona horientzako babesa jasoko dituen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Hainbat herrialdetan –Espainia barne– egindako azterlan batzuek erakusten dute ohiko etxebizitza galtzeak kalte egiten diola egoera hori jasaten duten pertsonen osasun fisikoari eta psikologikoari. Frogatu egin da utzarazpenak lotuta daudela antsietatea, depresioa, estresa eta loaren kalitatearen arazoak gehitzeari. Horri guztiari lotuta, buruko osasunaren arazo larrienetako bat suizidioa da, hori gertatzeko arriskua lau aldiz handiagoa baita utzarazpenek ukitutako pertsonen artean. Izan ere, azterlan horietako batek adierazi du % 68,4 direla utzarazpen prozesu batean murgilduta egonik trauma osteko estresaren ezaugarri guztiak agertzen dituzten pertsonak. Sindrome horrek larritasun handiko bizi-esperientziaren bat izan

dutenei eragiten die, eta ondorio iraunkorrak ditu buruko osasunean.

Puntu honetan gogora ekarri beharrekoa da estatu mailan dagoen utzarazpen-kopuru aztoragarria. 2008 eta 2015 bitartean 448.000 utzarazpen baino gehiago erregistratu dira Espainian. Gehienak hipoteka-betearazpenengatik gertatu dira, nahiz eta batzuk alokairua ez ordaintzeagatik egin diren. Nafarroari dagokionez, orain dela gutxi jakin dugu 2015ean prozesu horiek izugarri gehitu direla: % 32. Nolanahi ere, ehunka mila (milaka Nafarroan) dira kritikotzat eta dramatikotzat jo litekeen egoera horrek ukitzen dituen familiak. Izan ere, % 39k baino ez dute lortu banketxeekiko zorra kitatzea, eta gainerakoak zorpetze kronikoko dinamika batean sartu dira, haien bizitza osoaren garapena zamatuko duena.

Egoera horretan, utzarazpenak estres kronikoren sortzaile bihurtu dira, hainbat sentimendu tarteko: segurtasunik eza, errua, lotsa, beldurra eta norberaren bizitzaren gaineko kontrolaren galera. Egoera horrek familia-unitate osoa ukitzen du.

Gainera, alde psikologikoa ez da utzarazpen prozesuek ukitzen duten bakarra; osasunaren alde fisikoen gainean ere eragina dute. Zehatz-mehatz, hipertentsioa eta bihotz-arazoak areagotzeari lotzen zaio. Horrez gain, egoera horiekin batera tabakoaren eta alkoholaren kontsumoaren gehikuntza agertu ohi da, horietara jotzen baita estresari aurre egin nahian.

Adingabeak ere ez daude egoera horretatik kanpo. Horiei dagokionez, adierazi behar da bai haien osasuna bai haien eskola barruko eta eskola kanpoko baldintzak ukitzen direla.

Hori horrela izanik, familiak eta gizarte-plataformak dira arretarako eragile eta balio nagusiak bihurtzen direnak utzarazpen prozesuetan murgilduta dauden pertsonentzat, eta ez osasun-sistema publikoa, zeinak, egoeraren larritasuna gorabehera, ez baitu mekanismorik abiarazi biztanleria sektore horren osasun beharriantzeko eta horiei erantzuteko. Eta hori gertatzen da, nahiz eta egungo legegintza corpusak eduki badauzka horrelako jarduketara bat ezartzeko behar diren tres-

nak, honako lege hauetan adierazten diren osasun publikoko ekintza printzipio orokorretan ezartzen den bezala: Osasun Publikoari buruzko Lege Orokorra, Osasunari buruzko 10/1990 Foru Legea eta, bereziki, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharreri buruzko 17/2010 Foru Legea. Faktore ekonomikoek eta sozialek eragindako osasun arazoaren aurrean jarduteko aukera aurreikusten dute lege horiek (adibidez, 17/2010 Foru Legearen 2.1 art.). Horrez gain, Neurri Bereziei buruzko 1986ko Legeak ahalmena ematen die osasun agintariei biztanleen osasunerako arriskutsuak diren jarduketan gainean kontrol-neurriak hartzeko. Halaber, autonomia mailako legediak mota horretako ekimenak babesten ditu.

Amaitzeko, beharrezkoa da testu honetan aipatzea osasun arazo horien aurrean prestasunez ez jarduteak osasun-sistamarako ekar ditzakeen kostu erraldoiak. Prebentzioko eta azkar jarduteko plan egoki baten bidez ere jardunen litzateke, eta beharrezko aurrekontua murriztuko litzateke.

Erabaki proposamenak:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Laguntza psikosozialeko estrategia bat ezar dezan, hipoteka-betearazpeneko edo alokairua ez ordaintzeagatiko prozesuek ukitutako pertsonak pairatzen dituzten kalteen prebentzioa eta murriz-

keta eta pertsona horientzako babesa jasoko dituen, bizi diren tokia edozein izanik ere; halaber, arreta psikologikoko programa egoki bat abiaraz dezan, pertsona horiei arreta emateko behar adinako estaldura izanen duena.

2. Arreta psikosozialeko protokolo bat sor dezan utzarazpen prozesuen biktima diren pertsonentzat, halako moduan non tresnak emanen baitzaizkie osasun arloko profesionalei –bereziki, lehen arretakoei–, kasu horietan jarduteko.

3. Berariazko arreta programa bat sor dezan utzarazpen arazoek ukitutako familietako adingabeiei arreta emateko.

4. Nafarroa mailan osasun publikoa zaintzeko programa bat abiaraz dezan, osasunaren aldetik arrisku-egoeran dauden pertsonak antzemateko, Nafarroako berariazko kasuistika eta horrek osasunaren zein ongizatearen gainean dituen ondorioak aztertzeko, prebentzio programak antolatu eta egokitzeko, eta utzarazpen prozesuek berekin dakartzaten giza kostuak, osasunekoak eta sozialak jakiteko. Horrela, emaitza horiek guztiak kontuan hartu ahalko dira Osasun, Gizarte Zerbitzu, Etxebizitza eta ukituta egon daitezkeen gainerako arloek politika publikoetan egin beharreko eskuhartzea planifikatzeko orduan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Sáez Barrao

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egutegi bat aurkez dezan, Ezgaitasunaren Arreta Integralerako “Valle del Roncal” Iruñeko zentroa berrizatzeko eta handitzeko proiektua gauzatzeko.

MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egutegi bat aurkez dezan, Ezgaitasunaren Arreta Integralerako “Valle del Roncal” Iruñeko zentroa berrizatzeko eta handitzeko proiektua gauzatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko kide Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Ezgaitasunaren Arreta Integralerako “Valle del Roncal” Iruñeko zentroa Nafarroako Gobernuaren jabetzako egoitza bat da, eta honako hauek artatzen ditu: 65 urtetik beheitiko bi sexuetako pertsonak, norberaren etxean autonomoki bizitzea eragozten dien desgaitasun psikiko arina, larria edo sakona dutenak, edo dena delakoarengatik beren famili etxean gelditzeko behar duten laguntza familiarra eta soziala ez izanik, laguntza zabalera edo orokortua behar dutenak.

Egoitza Ospitale Psikiatrikoaren barrutian dago. 1997an eraiki zen, eta 1998tik dihardu.

Desgaitasuna duten 104 pertsona daude zentroan, eta eguneko zentroaren araubideko 10 leku ere baditu; batez besteko adina 50 urtekoa da. 170 langileko plantilla dauka.

Zentroaren egoera penagarria da, arazo funtzional eta konstruktibo larriak baititu. Parlamentutaldeok egoera hori bertatik bertara egiaztatu ahal izan genuen aurtengo martxoaren 15ean egindako bisitan.

Egoiliarrek bost unitatetan antolatzen dira. Unitate bakoitzak zortzi logela hirukoitz ditu. Egoiliarrek taldekatzeko filosofia horrek zuzenean talka egiten du egoiliarren pribatutasunari lehentasuna ematearen alde gaur egun dagoen joerarekin. Zentroak, halaber, gabezia nabarmenak ditu azalerei dagokienez; esate baterako, bai egongelak

bai jangelak behar baino txikiagoak dira egoiliar mota horrek erabil ditzan.

Arazo funtzional horiez gain, arazo konstruktiboak ere badaude; esate baterako, patioko oztopo arkitektonikoak, zenbait alderditako hezetasunak eta zentroko zenbait tokitako pitzadurak.

Jarduketa horiek gauzatzeko, Ezgaitasunaren Arreta Integralerako “Valle de Roncal” Iruñeko zentroa berrizatzeko eta handitzeko proiektu bat egiteko agindu zen.

Proiektuaren kostua, zatika eginen baita (7), 4.211.580 €-koa da (5.715.114,06 €, BEZa barne).

Proiektua osorik gauzatzeko epea 3 urtekoa izanen dela uste da.

Nafarroako Gobernu bat dator diagnostiko horrekin eta zentroan esku hartu beharrarekin.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du:

1. Aurten bertan, irailean, zentroa berrizatzeko eta handitzeko proiektua gauzatzeko egutegia aurkez dezan, zeinetan jasoko baita behar den aurrekontua, Nafarroako aurrekontu orokorren kargura, proiektu hori 2017an, 2018an eta 2019an garatzeko. Helburua da proiektua 2019an bukatzea.

2. Zentroa berrizatzeko eta handitzeko proiektu hori “Valle del Roncal” Senitartekoen Elkartearen eta zentroan lan egiten duen profesionalen parte-hartze etengabearekin, jarraipenarekin eta adostasunarekin egin dadin.

Iruñean, 2016ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikuskapen-ekintzak bultza ditzan, Foru Komunitateko zerbitzuguneei eta gasolindegiei buruzko araudia betetzen dela egiaztatzeko.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ikuskapen-ekintzak bultza ditzan, Foru Komunitateko zerbitzuguneei eta gasolindegiei buruzko araudia betetzen dela egiaztatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

1997tik aitzina, Nafarroa aitzindari da Espainian erregai-salmentarako instalazioetako erabiltzaileen eta kontsumitzaileen eskubideak arautzeari dagokionez. Halatan, 182/1997 Foru Dekretuak eskubide horiek arautu zituen, are horietako batzuk auzitan jarriak edo zerbitzuguneei eta gasolindegien merkatuaren jardunean urratuak izan baino lehenago ere.

Foru dekretu horrek ezartzen zuen nahitaezkoa dela instalazioaren ardura duen pertsona bat egotea ibilgailuetarako gasolioa eta gasolina jendeari saltzeko instalazioa irekita edo/eta zerbitzuan dagoen bitartean, zenbait arrazoi direla medio (bezeroarentzako arreta, segurtasuna eta abar). Foru dekretuak gertakariei aurrea hartu zien; izan ere, urteak joan, urteak etorri, ugaritu egin dira halako gasolindegia zeinetan bai gauez, bai hogeita lau orduetan, bai eguneko une jakin batzuetan, gasolina edo gasolioa zerbitzatzeko duena bezera baita, eta kreditu-txartelaren bidez ordaintzen du; horien artean, low cost izenez ezagutzen direnak.

Gauzak horrela, lehia desleiala gertatzen da araudia betetzen duten eta betetzen ez duten gasolindegiei eta zerbitzuguneei artean, eta, horretaz gain, sektorean ez da lanposturik sortzen eta murriztu egiten dira kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak.

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikuskapen-ekintzak bultza ditzan, Foru Komunitateko zerbitzuguneei eta gasolindegiei buruzko araudia betetzen dela egiaztatzeko, berariaz begiratuz 182/1997 Foru Dekretuko 7. artikuluan xedatutakoa betetzen dela.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enpresei eska diezaien, ikuskatze-ekintzak egin ondoren, araudia betetzea, eta, kasua bada, 182/1997 Foru Dekretuko 11. artikuluan aurreikusitako zehapenak jar ditzan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Foru parlamentariak: Virginia Alemán Arrastio, Adolfo Araiz Flamarique, Carlos Couso Chamarro eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lodosako Pablo Sarasate BHIrako aurreinskripzioa baino lehenago aurreikusitako hasierako eskolatze-eskaintza mantentzeko.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Lodosako Pablo Sarasate BHIrako aurreinskripzioa baino lehenago aurreikusitako hasierako eskolatze-eskaintza mantentzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Lodosako Pablo Sarasate BHIak joan den ekainaren 1ean, asteazkenean, Parlamentuko agerraldian adierazi bezala, ikastetxe horretan (Pablo Sarasate BHIan, hain zuzen) talde-murrizketa bat egon da, gehiegizkotzat jotzen dutena. Izan ere, DBHn hiru talde daude 1. mailan eta beste hiru 2.ean; baina hemendik aurrera maila horretako bakoitzean bi talde baino ez omen dira egonen, eta horrek ratioa handitzea eraginen du, irakaskuntzaren kalitatea kaltetuta. Ratioa handitzeak honako alderdi hauek dakartza berekin:

1. Ikasleak artatzeko zailtasun handiagoa; gainera, BHI horretan ikasleek aniztasun oso handia daukate:

– aniztasun akademikoa: ikasle guztiek ez dute berdin ikasten eta ez dituzte gaitasun berak. Hori dela eta, ahalik eta modu indibidualizatuenean eman behar zaie arreta (zeregin hori ezinezkoa da ikasgelan hainbeste ikasle egonda).

– aniztasun soziala: DBHko 1. eta 2. mailtako ikasleen % 50 baino gehiago sozialki kaltetuak diren gutxiengoetakoak dira, horrek ikasgelan zailtasun erantsia dakarrela.

– Psikologiako eta hezkuntzako aniztasuna: era berean, ikasleen ehuneko handi batek TDAH, TDA eta beste arazo batzuen diagnostikoa dauka. Horrez gain, curriculum bereziko unitateko ikasleak hartu behar dira kontuan: matrikulari dagokionez ez dira zenbatzen, talde propioa daukatelako (2016-2017 ikasturtean zazpi ere izan daitezke DBHko 1. mailan eta beste bi DBHko 2. mailan, biek jokabidearen inguruko arazoak dituztela), baina haien eskola-orduen ia erdian ikasgela partekatzen dute 1. eta 2. mailtako gainerako ikaskideekin.

2. Irakasle-kopurua murriztea (ikasturte honean baino lau edo bost gutxiago), eta horrek eragiten duena:

– aurretik aipatu bezala, aniztasuna artatzeko zailtasun handiagoa, ia ezinezkoa baita gaur egun hartzen diren neurriak gauzatzen jarraitzea: ABC taldeak, PROA, curriculumaren egokitzapenak eta abar.

– ikasgela barruko eta horretatik kanpoko gehiegizko lanak eragotzi egiten du borondatezko irakasleen orain arteko parte-hartzea ikastetxeko hainbat proiektutan (hala nola hezkidetzak, osasunaren aldeko eskolak, bizikidetasunaren batzordea eta abar).

Egia da, DBHko 1. mailan aurreinskripzioa egin duten ikasleen kopurua ikusita, egoera legezko-tasunaren barnean dagoela esan daitekeela. Baina, halaber, egia da aurreinskripzio horretan ez direla kontuan hartzen ikasturtean zehar bat-batean gertatzen diren matrikulak, ezta aurreinskripziorik gabe irailean gauzatzen direnak ere. Ikasle horiek bakarrik kontuan hartuta, bi mailtan hiru talderi eustea ahalbidetzen duen kopurua izanen genuke ia-ia. Hala ere, harago joanda, ikasleak ezin dira tratatu zenbaki hutsak izanen balira bezala. Pertsonak izateagatik merezi duten bezalako arreta eskaintzen jarraitu nahi bada, ezinbestekoa da, gaur egun duten egoerari behintzat eustea.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lodosako Pablo Sarasate BHL-rako aurreinskripzioa baino lehenago aurreikusitako hasierako eskolatzeko eskaintza mantentzeko, honako hauek osatzen dutena: DBHko 1. mailako hiru talde, DBHko 2. mailako hiru talde, DBHko 3. mailako bi talde, DBHko 4. mailako bi talde, Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Progra-

mako 2. mailako talde bat, Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programako 3. mailako talde bat eta Curriculum Egokituaren Programako talde bat.

Iruñean, 2016ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Sáez Barrao

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako zentro teknologikoen hazkundera eta bilakaera babestu ditzan, zentro teknologikoen sarerako eredu berri bat prestatuz, Europako errealitate teknologikora egokitua.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako zentro teknologikoen hazkundera eta bilakaera babestu ditzan, zentro

teknologikoen sarerako eredu berri bat prestatuz, Europako errealitate teknologikora egokitua. Mozioa 2016ko maiatzaren 13ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emanaldiak Interneten bidez eskaintzen dituzten munduko telebista guztiak ikusten lagundu eta aukera hori erraztu dezan, salbu eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren edozein artikuluri eraso egiten dion edukia daukatenak.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita emanaldiak Interneten bidez eskaintzen dituzten munduko telebista guztiak ikusten lagundu eta aukera hori erraztu dezan,

salbu eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren edozein artikuluri eraso egiten dion edukia daukatenak. Mozioa 2016ko maiatzaren 27ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten baitizkio Takbar Haddi hiritar sahararrari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten dizkio Takbar Haddi hiritar sahararrari, bere seme Mohamed Lamine Haidala-ren erailketa dela-eta justizia egin dadin tinko borrokatzen ari baita.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Marokoko agintariak premia ditzan Mohamed Lamine Haidala-ren heriotzari buruzko ikerketa independente bat abiaraz dezaten, haren heriotzaren arrazoiak argitu ditzaten, prozesu judizial batean erantzukizun penala

exiji ditzaten eta bere gorpuzkiak familiari eman diezazkioten.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Marokoko Erresumari berriro exiji diezaion Sahara Mendebaldeko lurralde okupatuetan giza eskubideak zorrotz betetzeko eta sahararrek pairatzen dituzten eskubide-urraketak bukatzeko. Eta halaber premiatzen du tinko lan egin dezan Europar Batasunaren barruan, MINURSOren eginkizunak heda daitezen Mendebaldeko Saharan giza eskubideak betetzen direla zaintzera eta babestera.”

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez igarza

Adierazpen instituzionala, Espainiako Zeinu-Hizkuntzen Egun Nazionalaren kariatara.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“– Nafarroako Parlamentuak erakunde, eragile publiko, gizarte-eragile eta herritar guztiei dei egiten die konpromisoz jardun dezaten Espainiako Estatuko zeinu-hizkuntza ofizialak gure erkidegoko bizitzaren arlo guztietan –hezakuntza, gizartea, kultura, ekonomia eta politika– berdintasun-egoeran jartze aldera. Hizkuntzek funtsezko zeregina dute gure erkidegoen elkarbizitzari eta errespetuari begira; hortaz, neurriak taxutu behar ditugu Espainiako Estatuko zeinu-hizkuntza ofizialen babesa bermatzeko.

– Nafarroako Parlamentua beti egonen da berdintasuna, justizia soziala, inklusioa eta aniztasuna ere defendatzen dutenen alboan; hartara, Pertsona Gorren Estatuko Konfederazioaren elkarre-mugimenduaren lana aitortzen du, laguntza erabakigarria eman baitu hizkuntza horiek lege- eta gizarte-estatus bat lor dezaten; baina, batez ere, bizirik iraunarazi baitu herritar guztien ondare komunaren parte den ondasun bat.”

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasunik sakonena adierazten baitie Orlandoko atentatuen biktimei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Orlandoko atentatua gaitzesten, bere elkartasuna adierazten eta atentatu horrek eragindako saminarekin bat egiten baitu.

“Orain dela gutxiko gertakariak direla-eta, Parlamentu honek dio

1. Gure gogoa, beste ezer baino lehen, Orlandoko atentatuen biktimekin dago. Nafarroako Parlamentuak biktimekiko elkartasunik sakonena adierazi nahi du, eta bihotz-bihotzez bat egiten du haien saminarekin. Erakunde hau haien esku jartzen da, bai eta Estatu Batuetako herriaren eta LGTBI erkidego osoaren esku ere, eta bere maitasun zintzoa helarazten die une latz honetan, Parlamentu honek bere apalean egin dezakeena haiei eskaintzeko, bizi diren une dramatiko hauek, hain gertu sentitzen ditugunak, arintze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak pitzadurarik gabe gaitzesten du Orlandon gertatutako atentatua, zeina gorrotoaren kulturaren emaitza baita, ISISek ereiten duen erlijio-gorroto estremistaren emaitza,

kasu honetan Gay erkidegoaren aurkako eraso izateagatik larriagoa dena.

3. Berretsi egiten dugu askatasunaren, demokraziaren eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako balioen alde gaudela; izan ere, gure pentsamoldearen oinarri dira, eta Nafarroako herriak ez die horiei inolaz ere uko egingen.

4. Nafarroako Parlamentuak Foru Komunitateko herritarrak premiatzen ditu adierazpen honekin bat egin dezaten eta indarkeria terrorista arbuia-tzeko eta biktimei elkartasuna adierazteko egiten diren ekitaldi guztietan parte har dezaten.

5. Nafarroako Parlamentuak erabaki du, dolua- ren seinale, masta erdian jartzea fatxada nagusiko banderak eta Legebiltzarreko leku ofizialetakoak, eta ikusteko moduko leku batean jartzea, dolu-xingolarekin, sexu-askapenaren sinboloa (ortzadarra).

6. Adierazpen hau Estatu Batuen Espainiako enbaxadari helaraztea.”

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Orlandoko gertakari lazgarrietan eraildako pertsonen familia eta lagunen saminarekin, bai eta gertakari lazgarri horien gaineko gaitzespen-hitzekin ere.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“– Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Orlandoko gertakari lazgarrietan eraildako pertsonen familia eta lagunen saminarekin, bai eta gertakari lazgarri horien gaineko gaitzespen-hitzekin ere.

– Nafarroako Parlamentuak bat egiten du munduko edozein tokitan gertatzen den indarkeriazko ekintza edo/eta ekintza homofobo orok eragindako tristeziarekin eta arbuioarekin.”

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko Larrialdi Zerbitzuan fibrinolisia egiteari buruzkoa.

MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ospitaleguneko Larrialdi Zerbitzuan fibrinolisia egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernandez de Garaialde y Laz-

kano Sala andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Eman zaigun informazioaren arabera, Nafarroako Ospitaleguneko Larrialdi Zerbitzuan berehala hasiko dira fibrinolisia egiten.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu, bai Larrialdi Zerbitzuko langileak bai gu ere kezkatzen gaituzten zalantzak argitzearren:

1- Langile gehiago beharko dira, ala larrialdietan daudenekin eginen al da?

2- Non kokatuko dira langileak? Inplikaturako langileentzako prestakuntza-planik ba al dago edo egin al da?

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano Sala

Galdera, Nafarroako Gobernuak datozen urteetarako Miguel Indurain Fundazioarentzat dauzkan planari eta programari buruzkoa.

CRISTINA ALTUNA OCHOTORENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak datozen urteetarako Miguel Indurain Fundazioarentzat dauzkan planari eta programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Cristina Altuna Ochotorena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer plan eta programa dauzka datozen urteetarako, Miguel Indurain Fundazioarentzat?

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Cristina Altuna Ochotorena

Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa Baluarte Fundazioan sartzeari buruzkoa.

CRISTINA ALTUNA OCHOTORENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa Baluarte Fundazioan sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Cristina Altuna Ochotorena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa Baluarte Fundazioan sartzeari aurreikusi dela-eta, prozesu horrek zer ondorio izanen ditu bi entitate horietan?

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Cristina Altuna Ochotorena

Galdera, honako erabaki honi buruzkoa: Nafarroako Gobernua premia-tzen duena erraztu dezan urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten pertsona gaixoek tratamendu medikoa atxikitzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek agindutakoa izanik, finantzaketa publikoa duenean.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, honako erabaki honi buruzkoa: Nafarroako Gobernua premia-tzen duena erraztu dezan urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten pertsona gaixoek tratamendu medikoa atxikitzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek agindutakoa izanik, finantzaketa publikoa duenean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak erabaki bat onetsi zuen 2015eko azaroaren 19an –2015eko azaroaren 25eko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren arabera–, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen duena erraztu zezan urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten gaixoek tratamendu medikoa atxikitzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek agindutakoa izanik, finantzaketa publikoa duenean. Zertan da erabaki horren betetzea?

Iruñean, 2016ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Galdera, Hezkuntza Departamentuaren egituran eta goikargudunen artean eginen diren aldaketei eta aldaketa horiek egiteko arrazoiei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuaren egituran eta goikargudunen

artean eginen diren aldaketei eta aldaketa horiek egiteko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuaren egituraren eta goikargudunen artean zer aldaketa egingen dira? Zeintzuk dira arrazoiak?

Corellan, 2016ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Lehen Hezkuntzan kanpo-ebaluaziorik ez egiteari buruzkoa.*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Lehen Hezkuntzan kanpo-ebaluaziorik ez egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

– Hezkuntza Ministerioak azalpenik eskatu al dio Hezkuntza Departamentuari, Lehen Hezkuntzan kanpo-ebaluaziorik ez egiteagatik?

– Hezkuntza Departamentuaren ustez, Lehen Hezkuntzako 6. mailako probek inolako zerikusirik ez daukate LOMCEk ezarritakoekin?

Corellan, 2016ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko lehendakaria hautatzeari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko lehendakaria hautatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Apirilaren 26an, Nafarroako Gobernuko Herri-tarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Olo Hualde andrea kide duen Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Gizarte Kontseiluaren bilkuran, lau kidek egin zuten eskaera ikusi ondoren, Irakasleen, Ikasleen eta Administrazioiko eta Zerbitzuetako Langileen ordezkariekin Kontseilua osatu arte lehendakariaren hautaketa atzeratzekoa, kontseilari horrek adierazi zuen bera ez zela hautaketa atzeratzearen aldekoa.

Ekainaren 7an, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeko agerraldian, Hezkuntzako kontseilari Mendoza jaunak esan zuen Olo Hualde andreak adierazitakoaren kontrakoa.

Hori guztia dela-eta, Olo Hualde andreak honako galdera honi idatziz erantzutea nahi dugu:

Mendoza jaunaren iritzia egokia dela uste al du? Zein dira bi kontseilari horien arteko kontraesan gertatzearen arrazoiak?

Corellan, 2016ko ekainaren 7an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, irakaslez bestelako langileak direla-eta Hezkuntza Departamentuak ikastetxeei eskatutako informazioari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, irakaslez bestelako langileak direla-eta Hezkuntza Departamentuak ikastetxeei eskatutako informazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hainbat epaik Hezkuntza Departamentua kondenatu dute ikastetxeetako irakasleei udako hiletako ordainsariak ordaintzera.

Departamentuak idazki bat bidali die ikastetxeei, horietan lan egiten duten irakaslez bestelako

langileei buruzko informazioa eskatzen duena. Zehatzago, eta beste datu batzuen artean, ikastetxea itxita egon den egunei buruzko informazioa eskatu du.

– Zein dira ikastetxeei idazki hori bidaltzearen arrazoiak?

– Ba al du Hezkuntza Departamentuak irakasle ez diren bitarteko langileen oporraldiak deskontatzeko asmorik?

Corellan, 2016ko ekainaren 7an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Fiteroko monasterioko klaustroaren zaharberritzea finantzatzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Fiteroko monasterioko klaustroaren zaharberritzea finantzatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldearen ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduaren 189. artikuluan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

– Nafarroako aurrekontuetatik behin betiko zer zenbateko finantzatu da Fiteroko monasterioko klaustroa zaharberritzeko?

– Zein da aurrekontuen bidezko finantzaketa horren xehakapena 2007tik?

– Iruñeko eta Tuterako Artzapezpikutzak dirukopururen bat eman al du zaharberrikuntza horretarako?

– Zein izan da edo dira zaharberrikuntza horren enpresa adjudikazio-hartzaileak? Zer zenbatekotan eta zein prozeduraren bidez adjudikatu ziren obrak?

– Eliza Katolikoaren ustezko titulartasun pribatua duten ondasunak zaharberritzeko funts publiko asko ematen direnez, inola bermatu al da monasteriora sartzeko (klaustroa ere) doakoa izatea?

Iruñean, 2016ko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Karlismoaren Museoaren edukiari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Karlismoaren Museoaren edukiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu–Nafarroa parlamentu-taldearen ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamen-duaren 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

Nafarroako Gobernuaren webgunean

(http://www.navarra.es/home_eu/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Museos/Museos+y+colecciones+permanentes/Museo+del+Carlismo/El+Museo/) honako hau adierazten da:

“Karlismoaren Museoaren helburuak dira Nafarroako eta Espainiako karlismoaren historia iker-tzea eta zabaltzea. Karlismoa XIX. eta XX. mende-etako historiaren testuinguruan aztertzen da, prozesu politiko eta sozial gisa, Europako eta munduko beste batzuen antzera”

Halaber, beste atal batzuetan adierazten da museo hori dela “ekipamendu museistiko berria, irizpide zientifikoen bidez mugimendu politiko horren ondarea berreskuratzeke, ikertzeke eta hedatzeko funtsezko helburuak dituena”

Hala eta guztiz ere, inauguratu zen unetik bertatik kritika asko jaso ditu, museoan erakusten den edukia dela eta.

Museoko erakusketatik kanpo geratu da Francisco Franco diktadoreak 1937ko apirilaren 20an onetsitako Bateratze Dekretuaren ondoren mugimendu politiko horri gertatutako guztia; izan ere, dekretu horren 1. artikuluan honako hau xedatzen zen:

“Espainiako Falangea eta Erreketeak, beren gaur egungo zerbitzu eta elementuekin, erakunde politiko nazional bakar batean elkartzen dira nire buruzagitzapean; erakunde horri Ofentsiba Nazional-Sindikalistako

Batzarren Espainiako Falange Tradizionalista deituko zaio momentuz”.

Lizarrako Gobernadorearen Jauregian dagoen museoan ez da aurkituko 1939az geroztiko inolako erreferentziarik, urte horretan mugimenduak distantzia hartu zuela frankismoarekin eta azkenean proposamen oso ezberdina ekarri zuela, gaur egun Alderdi Karlista-EKA dena. Alderdi hori izan zen bere ondarea Nafarroako Gobernuari uztea erabaki zuena, baina Gobernuak –garai hartan UPNK agintzen zuen– gobernu bati ez dagokiona egin zuen: ideologiaren eta historiaren aldetik mugatzea bi mendetan buelta asko eman dituen mugimendu politiko bat.

Horrela, museoaren edukietatik kanpo geratu dira funtsezkoak izan diren gertaera batzuk; adibidez, 1945eko abenduaren 3koa, zeinetan jarraitzaile karlistek eta polizia frankistek Iruñean tiroka elkarri eraso egin baitzioten, eta horrek erregimenarekiko haustura finkatu zuen: ehunka lagun atxilotu ziren eta hainbat lokal itxi ziren. Halaber, alde batera utzi da nola karlismoa frankismoaren amaieran indarra hartzen joan zen herri mugimendu demokratiko bezala, Jurramendiko urteko ekitaldian 20.000 lagun biltzea lortuta. Era berean, ez dira aipatzen ez 1976ko gertaerak, zeinetan bi pertsona erail baitziren –Manuel Fraga Herrizaintza ministroa zenean–, ez legezkatze berantiarra ere, Alderdi Karlistari 1977an hautetsia izatea eragotzi ziona eta haren beheranzko kurbaren hasiera ekarri zuena, ez eta ondoren mugimendu politiko horri gertatutako guztia.

Museoa inauguratu zen egunean, hau da, 2010eko martxoaren 24an, azken hamarkadetan karlismoko figura garrantzitsuenetako bat izan den Karlos Hugo Borboi eta Parmakoa jaunak honako hau esan zuen –Gobernua ez zen gai izan ekitaldi ofizialean hari hitza emateko–: «Atzerabegirada oso ondo dago, baina zerbait falta da»; «ideologia karlistaren aipamenak» zehaztu zuen, adibide gisa. Halaber, ohartarazi zuen museoa ezin zela izan «iraganeko hilerri». Baina Nafarroako Gober-nuko garai hartako lehendakari Miguel Sanz jaunaren hitzaldian ez zen antzekorik aipatu; izan ere, berarentzat karlismoa beste gauza bat da:

«Gerren eta sufrimenduaren erreferentzia, balio erlijiosoak gogor defendatzearena, osotasun moralarena eta eskuzabaltasun pertsonalarena, tradizioen zerizanari eusteko».

1976ko gertaera horiek mugimendu karlistaren bilakaera markatu zuten neurri handian, eta aurren, gertaera horien 40. urteurrena ospatzean, behar-beharrezkoa da aurreko gobernuak ideologia aldetik egindako mozorrotze horiek onbidertzea.

Hori dela-eta, ondokoa jakin nahi dut:

– Asmorik al du Gobernuak Karlismoaren Museoko edukia aldatzeko, halatan mugimendu politiko horren historiaren ikuspegi zabalagoa, 1937ko apirilaren 20ko Bateratze Dekretutik harantzago doana eta gure egunetara arte heltzen dena, izate aldera?

– Ikuspegi berri horren barnean sartuko al da Alderdi Karlistaren azken hamarkadetakoa historia? Alderdi horrek honela definitzen du bere burua: “erakunde politikoa, demokratikoa eta herrikoa, borrokatu egiten duena Espainiako egungo estatuaren eta egitura liberal-kapitalisten ordeztu esparru soziopolitiko berri bat ezartzeko, Espainietako Herrien konfederazio askean eta gizarte humanista, autokudeatzaile, sozialista eta ekologista baten eraikuntzan oinarritzen dena”.

– Edukiaren aldaketa horren barnean sartuko al litzateke aipamen berezi bat egitea Jurramendin 1976ko maiatzaren 9an izandako gertaerei buruz, horietan Ricardo García Pellejero eta Arriano Jiménez Santos erail baitziren eta hainbat zauritu egon baitziren?

Iruñean, 2016ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Ribaforadako kontsultategi mediko berriaren eraikuntza geldiarazteari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Ribaforadako kontsultategi mediko berriaren eraikuntza geldiarazteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

2016ko zenbait kontusailetan 23 milioi blokeatuko direla iragarri dela-eta, galdera honi idatziz erantzutea nahi dut:

– Zergatik geldiarazi da Ribaforadako kontsultategi mediko berriaren eraikuntza, eta ez beste jarduketa batzuk?

– Nafarroako Gobernuak zer aurreikusten du kontsultategi publiko horretan jarduteari begira?

Corellan, 2016ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Iruñeko El Huerto ikastetxean curriculum bereziko unitate bat ez ezartzearen arrazoiei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Iruñeko El Huerto ikastetxean curriculum bereziko unitate bat ez ezartzearen arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Iruñeko El Huerto ikastetxean zergatik ez da ezarri curriculum bereziko unitate bat, zenbait familiak eskatu duten bezala?

Corellan, 2016ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

